

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIKO UDALA

#### Amurriion terrazak, mahaitxoak eta kanpoko barrak jartzea arautzen duen udal ordenantzaren behin betiko onarpena

2022ko uztailaren 28ko osoko bilkuran Udalak erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea Amurriion terrazak, mahaitxoak eta kanpoko barrak jartzea arautzen duen udal ordenantzari (espediente: 2022/S01.07.00.02/3). Erabakia 2022ko abuztuaren 19an argitaratu zen ALHAOn (94. zenbakia). Erabaki horren aurka erreklamazioak aurkezteko epealdian ez da aurkeztu erreklamaziorik, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, erabakia behin betiko bihurtzen da, eta ordenantzaren testu osoa argitaratzen da. Ordenantzak ALHAOn argitaratzen denetik hamabost egun baliodun igaro ondoren sortuko ditu ondorioak. Hona testu osoa:

#### TERRAZAK, MAHAITXOAK ETA KANPOKO BARRAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

##### I. titulua

##### Ordenantzaren aplikazioa

##### I. kapitulua. Helburua, eremua eta muga orokorrak

##### 1. artikulua. Helburua

1. Ordenantza honen helburua da erabilera publikoko edo sarbide askeko eremuetan terrazak eta mahaitxoak (ostalaritzako establezimendu legalizatu baten aldi baterako osagarri izateko) jartzeko eta jaiak direla-eta establezimendu publikoetan kanpoko barrak eta antzeko instalazioak jartzeko araubide tekniko eta juridikoa ezartzea.

2. Aurreko apartatuaren ondorioetarako, honako hauek dira terrazak eta mahaitxoak: mahai, eserleku eta instalazio osagarrien multzoak; osagarriak finakoak zein mugikorak izan daitezke, hala nola, itzalkinak, euskarriak, toldoak, estaldurak, alboko babesak, argiak, bero hornidurak eta antzeko beste batzuk.

3. Era berean, 18. artikuluan ostalaritza jarduerekin lotutako erabilera pribatuko eremu pribatuetako terrazak eta mahaitxoak jartzea arautzen da.

##### 2. artikulua. Eremua

1. Ordenantza hau Amurrioko udalerriko (administrazio batzarrak alde batera utzita) erabilera publikoko eremu guztietan aplikatuko da (kaleak, plazak, barneko patioak, eremu libreak, berdeguneak eta antzekoak), titularrak gorabehera. Eremua erabilera publikokoa den argitzeko, berezko egoera eta indarreko plangintza hartuko dira kontuan.

2. Terrazei eta mahaitxoei zein jaietan eta udalerriko bestelako jai ekintzetan baimentzen diren kanpoko barrei ordenantza hau aplikatuko zaie, batez ere II. eta III. tituluaren zehar.

3. Hala ere, araudi hau ez zaie aplikatuko txosna, karpa, etxola eta antzeko beste egitura desmontagarri batzuetan jartzen diren kanpoko barrei, baldin eta egitura horiek ez badaude salmenta edo ostalaritza establezimenduekin lotuta eta Udalaren baimena badute noizbehinkako ospakizunetarako eta herriko jai-ekintzetarako.

4. Ostalaritzako jarduerekin lotutako erabilera publikoko lurzoru pribatuan terrazak, mahaitxoak edo bestelako elementuak jartzea ordenantza honen II. tituluaren V. kapituluaren arautzen da berariaz.

### 3. artikulua. Muga orokorrak

1. Debekatuta dago kanpoko barrak eta terrazak edo mahaitxoak jartzea jarduera lizentziarik ez duten edota Amurrioko Udalaren jardueren erregistro orokorrean alta emanda ez dauden ostalaritzako establezimenduetan eta antzekoetan eta sarrera mugatuta dagoen establezimenduetan, batez ere txokoetan eta gazteen lonjetan.

2. Era berean, ezin ipini ezingo da kanpoko barrarik, terrazarik ez mahaitxorik zabalera hiru (3,00 m) metrotik beherakoa den espaloietan eta oinezkoentzako eremuetan, eta galtzadako babesik ez dagoen zirkulazio azkarreko bideen ertzetan ere ez.

3. Gainera, debekatuta dago instalazio horiek ipintzea oinezkoentzako pasabideen aurrean, aparkaleku irisgarrien aurrean, larrialdietarako irteeren aurrean, autobus geltokien aurrean, beira, kartoi edo zabor edukiontzien aurrean eta antzeko instalazio edo elementuen aurrean.

4. Instalazioak ezin du eragotzi eremu publikoen irisgarritasuna, eta gutxienez oztoporik gabeko bi (2,00) metroko zabalerako tartea utzi behar du oinezkoentzat

5. Proiektatutako instalazioaren (edo instalazio multzoaren) perimetroa ezin da 45,00 metrotik gorakoa, eta ezin du okupatu 50,00 metro karratu baino gehiago.

6. Ondoko lokalen fatxada aurpegia okupatzea dela-eta, honako hau ezartzen da:

a) Ondoko lokala etxebizitza eraikin bateko atariarekin edo garaje baten oinezkoentzako sarrearekin edo antzeko batekin lotuta badago eta terrazak sartzeko bidea eragozten badu, fatxada aurpegian gutxienez 2,50 metro utzi behar dira okupatu gabe, ahal dela atariko sarrerako atearen aurrean.

b) Proiektatutako instalazioak ezin du gainditu jarduera nagusia egiten den lokalaren fatxadaren luzera eta horrela ondoko lokal baten fatxada aurpegia okupatu, honako kasu honetan izan ezik: ondoko lokalaren titularrek baimena ematen badu idatziz (lokala zenbait pertsonarena izanez gero, denek eman behar dute baimena). Nolanahi ere, lokalaren fatxada aurpegiko instalazioaren jarraitasuna eta lerrokadura mantendu behar dira.

c) Kasu batzuetan ez da beharko jabearen baimena ondoko lokalaren fatxada aurpegia okupatzeko: terrazaren edo mahaitxoaren lerrokadura fatxadatik 5,00 metro baino urrunago dagoenean (fatxadarekiko perpendikularrean neurtuta); aparkalekuetan proiektutako instalazioetan.

d) Halaber, ostalaritzako lokal baten ondoan beste bat irekitzen bada eta, b) edo c) apartatuan ezartzen denaren itzalpean, aurreko lokalak lokal berriaren fatxada aurpegiaren zati bat okupatzen badu, aurreko lokalak terraza aldatu beharko du eta libre utzi beharko du lokal berriaren fatxada aurpegia, eta ez du edukiko kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

7. Halaber, kanpoko barrak eta terrazak eta mahaitxoak jartzea debekatu ahal izango da, arrazoi egokiak azalduta, bide segurtasunagatik, obra publiko edo pribatuak egiteagatik edo interes publikoko antzeko beste inguruabar batzuegatik.

8. Ipintzen diren terrazak edo mahaitxoak dauden hiri altzairuetara egokitu beharko dira, haien erabilera edo helburua eragotzi gabe.

9. Ureztatze eta sute ahoak, zerbitzuetako erregistroak (ura, argia, saneamendua), larrialdietako irteerak eta etxebizitza eta lokaletako sarbideak guztiz libre utzi beharko dira, behar denean zerbitzu publikoek berehala erabiltzeko moduan.

10. Ezin da instalatu kablerik ez hodirik lurrean terrazei, kanpoko barrei eta mahaitxoei zerbitzua emateko. Lokala kanpoko barrarekin, terrazarekin edo mahaitxoekin konektatzeko kableak, hodiak edo antzekoak airetik jarriz gero, lanak segurtasunarekin egin beharko dira, instalazioa ongi apaindu beharko da, eta gutxienez berrehun eta hogeita (220,00) zentimetroko garaiera, lurretik neurtuta, oztoporik gabe utzi beharko da. Aireko instalazioa (kablea, hodia etab.) albo batetik eskuz, erraz eta tresnarik gabe deskonektatu eta desmuntatzeko modukoa izan behar da, hau da, behar izanez gero igarobidea libre uzteko modukoa.

11. Udalak berariaz baimendu ezean, erabat debekatuta dago billarrak, futbolinak, jolasteko makinak eta bestelako zeinahi makina edo gailu ipintzea ordenantza honen xede diren terrazetan edo mahaitxoetan.

12. Kanpoaldean soinu erreprodukzioko aparatuak jartzeko baimena egoera berezietan bakarrik baimendu ahal izango da, Udalari eskatu eta hark onartu ondoren, eta betiere araudi eta xedapen egokietan ezarritako bolumen mugak errespetatuz gero.

13. Ostalaritzako establezimenduen terraza eta mahaitxo guztiak irisgarriak izan behar dira, eta instalazio horien elementuen diseinua eta kokapena pertsona guztiak beren kabuz erabiltzeko modukoak izan behar dira.

14. Terrazan edo mahaitxoan inolaz ere ezin izango dira ipini ez pilatu baimendutakoak baino elementu gehiago.

## II. titulua Terrazak ipintzea

I. kapitulua. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan terrazak jartzeko baldintzak

### 4. artikulua. Luzera

Establezimendu bakoitzeko instalazioaren perimetroa, eraikinaren fatxada batean edo zenbaitetan, alboetako babesak (mota guztietakoak) barne, ezin da izan hogeita hamar (30,00) metrotik gorakoa.

### 5. artikulua. Okupazioa

1. 3. eta 4. artikuluetan ezartzen diren mugak gorabehera, terrazen eta mahaitxoaren okupazioan honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Kasu guztietan, instalazioak bermatu behar du fatxadaren ondoan gutxienez bi (2,00) metroko tartean ez egotea oinezkoentzako oztoporik.

b) Luzetara ipini behar dira, ahal dela espaloia ertza ondoan, ibilgailuen ateak irekitzeko moduko tartea utzita, bidaiarien joan-etorria ez eragozteko, lineako aparkalekuen ondoan ipiniz gero, eta ibilgailuen trafikoa bermatzeko.

c) Espaloia ertza sei (6,00) metrokoa edo handiagoa izanez gero, fatxadaren ondoan gutxienez hiru (3,00) metroko tartea oztoporik gabe utzi behar da oinezkoentzat.

d) Espaloia ertza 6,00 metrotik beherakoa bada, instalazioaren zabalera ezin da izan espaloia ertza erdian baino gehiago, eta ordenantza honen 5.1.a) artikuluan ezartzen den tartea oztoporik gabe utzi behar da oinezkoentzat.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, oinezkoentzat libre utzi beharreko tartea Udalaren iritziz handitu ahal izango da (arrazoiak emanda) oinezkoen trafikoagatik beharrezkoa izanez gero.

3. Baldin eta ezohiko inguruabarrengatik (ongi arrazoituta) terraza edo mahaitxoaren establezimenduaren fatxadaren ondoan ipini behar bada, horretarako baimena ahal izango da, Udalak proposatzen dituen diseinua eta baldintzak aintzat hartuz gero.

4. Itzalkin edo antzeko beste elementu mugikor batzuk erabili ahalko dira. Itzalkin edo elementu mugikor horien garaiera berrehun eta hogeita (220,00) zentimetrokoa izan beharko da gutxienez lurretik irteten den edozein elementuren beheko ertzetik, inolako oztoporik gabe, eta beraren proiektzio bertikalak ezin ditu gainditu lizentzia markatutako mugak.

### 6. artikulua. Alboetako babesak

1. Instalazioak hartzen duen azalera esparrua mugatzen duten alboko babesekin mugatu ahal izango da. Babesak itsuek oztopoa identifikatzeko modukoak izan behar dira.

2. Alboetako babesak finkoak edo mugikorak izan daitezke, gardenak edo zeharrargiak, baina betiere ingurura egokituak. Babesak egokiak diren edo ez horren gaineko eskumena daukan arloko udal zerbitzu teknikoek ebatziko dute.

3. Alboetako babes mugikorak egonkorak izan behar dira, hots, erraz ez mugitzeko moduan ipini behar dira, ondo bermatuta, ez haizeak ez oharkabeko talkek ez botatzeko moduan. Hori dela-eta, debekatuta dago alboetako babesak gurpilen edo antzeko gailuen gainean ipintzea, nahi ez dela ez mugitzeko galga sistema eduki ezean. Alboetako babesek irisgarritasunari buruzko araudia bete beharko dute.

4. Ezin izango dute gainditu instalaziorako baimendutako zabalera, eta garaiera metro batekoa (1,00) izan beharko da gutxienez.

5. Babesen garaiera 1,50 metrotik gorakoa bada, hortik gora gardenak izan beharko dira, eta bildu edo desmuntatzeko sistema bat eduki behar dute, bildu edo desmuntatutakoan garaiera hori ez gainditzeko modukoa. Gaez elementuak bilduta edo tolestuta utzi beharko dira, itzalperik ez esparru itxirik ez sortzeko.

6. Halaber, babesen garaiera 1,50 metrotik gorakoa izanez gero, terrazaren barruan ezin izango da erre, eta horren berri eman beharko da instalazioan erretzea debekatuta dagoela adierazten duten bi kartel gutxienez ipinita erraz ikusteko moduko lekuetan.

7. Terraza edo mahaitxoa hiru aldetan alboetako babesak ipiniz itxi ahal izango da. Laugarren aldea, establezimenduaren fatxadatik hurbilen dagoena, gehienez luzeraren ehuneko 60 itxi ahal izango da, ezin ipini izango da aterik, eta irisgarritasuna eta bertan zehar irten ahal izatea bermatu beharko dira.

Aurrekoarekin lotuta, instalazio alde guztietatik ixtea hautatuz gero, irteera tartera joateko pasilloak utzi beharko dira; gainera, barrualdean 4,00 metrotik gorako ibilbiderik egonez gero, larrialdietako argiak ipini beharko dira.

8. Beiraz hornitutako elementuak ipiniz gero, segurtasuneko beirak ipini behar dira.

9. Jardinerak ipiniz gero, baimendutako esparruaren barruan ipini behar dira; gainera, apaintasun publikoaren baldintzak bete behar dituzte, eta bete ezean, Udalak terraza kentzeko eskatu ahal izango ditu.

## **7. artikulua. Eraikuntza arinak**

1. Kapitulu honen aurreko artikuluen arabera mugatutako eremua erraz desmuntatzeko moduko behin-behineko elementuekin estali eta mugatu ahal izango da; elementu horiek espaloiairen gainean ainguratuta egon behar dira edota eutsi beharreko elementuetarako egokia den kontrapisu sistema eduki behar dute, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Luzetarako lau (4,00) metroko tarte bakoitzean lau ainguraketa puntu egon daitezke gehienez.

b) Zutiko bakoitzaren eta espaloiairen kanpoko ertzaren arteko distantzia hogeita hamar (30,00) zentimetrokoa izan behar da gutxienez, honako bi kasu hauetan izan ezik: aparkalekua dagoenean, distantzia hirurogei (60,00) zentimetrokoa izan behar da gutxienez; babes baranda dagoenean, distantzia hamar (10,00) zentimetrokoa izan daiteke.

c) Estaldura instalaziotik irtetzen diren elementuen beheko ertzaren garaiera berrehun eta hogeita (220,00) zentimetrotik gorakoa izan behar da.

d) Instalazioaren alboetako babesak aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera izan behar dira.

2. Gainera, estalduren diseinua berezia eta irekia izan behar da, eta bermatu behar du beste aldekoa ikustea, hau da, ezin dute eragotzi hiri eremuaren pertzepzioa, eta ezin dira izan edukiontzi konpaktu gisakoak.

3. Eguzkitik babesteko estaldura elementurik ipiniz gero (gortinak, estoreak, pertsianak eta abar), tolesgarriak izan behar dira, ikuspegiak ahalik gutxien eragozteko.

4. Ahal dela, egitura elementuak altzairuzkoak izan behar dira (herdoilgaitza, altzairurtua eta abar), eta akabera pinturaz edo metalikoak ez diren materialez eginez gero, gainerako hiri altzarietarako ezarritako motakoak izan behar dira, edo horiekin bat datozenak.

5. Beiraz hornitutako elementuak ipiniz gero, segurtasuneko beirak ipini behar dira.

#### **8. artikulua. Eraikuntza arinen mugak**

1. Eskumena daukan udal agintaritzak eraikuntza arina jartzeko baimena ukatu ahal izango du honako kasu hauetan:

- Eraikuntzak bideko segurtasuna eragozten badu (ikusgarritasuna murriztu, gidariei arreta galarazi...), udalerraren interesei kalte egiten badie (kultura, jai, kirol, eta bestelako helburuetarako erabilitako eremu publikoa), oinezkoen trafikoa nabarmenki zailtzen badu edo irisgarritasunaren araudia urratzen badu.

- Eraikuntzak eragina eduki ahal badu inguruko eraikin eta lokalen segurtasunean (ebakua-ziorako, esaterako).

- Eraikuntza ingururako formalki desegokia bada edo horrekin bat ez badator edo hiri paisaiaren irakurketa zuzena zailtzen badu.

2. Estaldura osoa edo zati bat desmuntatu behar izanez gero zerbitzu sareak mantentzeko, konpontzeko edo zabalteko, edo bide publikoan obrak egiteko, desmuntatze lanen horren eta ondoko muntatze lanen kostua lizentziaren titularrak bere gain hartu beharko du.

3. Inolaz ere ezin izango da ipini elementu finko edo iraunkorrik, muntatzeko edo desmuntatzeko obra bereziren bat egin behar izanez gero.

II. kapitulua. Oinezkoentzako eremuetan, plazetan eta eremu libreetan ipintzeko baldintzak

#### **9. artikulua. Oinezkoentzako kaleak**

1. Ordenantza hau aplikatzeko, oinezkoentzako kaletzat joko dira modu ofizialean halakoak direnak eta, gainera, fisikoki hala eratuta daudenak, hau da, espaloirik eta galtzadarik ez dutenak.

2. Terrazak eta mahaitxoak oinezkoentzako kaleetan ipintzeko, ezinbestekoa da kalea gutxienez bost (5,00) metro zabal izatea, eta horrez gainera gutxienez hiru (3,00) metro zabal den oztoporik gabeko pasabidea egotea oinezkoentzat eta suhiltzaile, ambulanzia, garbiketa eta abarren ibilgailu ofizialak pasatzeko.

3. Hamar (10,00) metro zabal edo zabalagoak diren oinezkoentzako kaleetan gutxienez lau (4,00) metro zabal den oztoporik gabeko pasabidea egon behar da oinezkoentzat beti.

4. Instalazioak alboetatik babestu eta mugatu ahal izango dira 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, baina betiere gutxienez 3,50 metroko bidea bermatuta suhiltzaileentzat eta ambulanzientzat.

5. Itzalkinak eta antzeko beste elementu mugikor batzuk erabili ahal izango dira, baldin eta hiru (3,00) metroko pasabide librea murrizten ez bada eta gutxienez berrehun eta hogeita (220,00) zentimetroko garaiera, irtenguneen beheko ertzetik neurtuta, oztoporik gabe uzten bada.

6. Establezimendu bakoitzeko instalazioaren perimetroa, eraikinaren fatxada batean edo zenbaitetan, alboetako babesak barne (direnak direlakoak), inolaz ere ezin da izan hogeita hamar (30,00) metrotik gorakoa.

7. Bermatu behar da lokaletan, atarietan eta antzekoetan sartu ahal izatea.

**10. artikulua. Plazak eta eremu libreak**

1. Eremu horietan terrazak eta mahaitxoak ipintzeko baimenen eskabideak udal administrazioak ebatziko ditu kasu bakoitzaren berezitasunen arabera eta honako baldintza hauek kontuan hartuz:

- a) Aurreko artikulua 6. puntuan bezala, instalazioak ezin du eduki luzeran hogeita hamar (30,00) metro baino gehiago.
- b) Gutxienez lau (4,00) metro zabal den pasabidea oztoporik gabe utzi behar da oinezkoentzat.
- c) Bermatu behar da lokaletan, atarietan eta antzekoetan sartu ahal izatea.

**11. artikulua. Alboetako babesak, eraikuntza arinak eta mugak**

Alboetako babesei, eraikuntza arinei eta horien mugei ordenantza honen 6., 7. eta 8. artikuluetan ezartzen dena aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

## III. kapitulua. Aparkalekuetan ipintzeko baldintzak

**12. artikulua. Aparkalekuetan ipintzeko irizpideak eta arau orokorrak**

1. Ordenantza hau aplikatzeko, aparkalekutat joko dira ibilgailuentzako lineako edo bateriako aparkalekuak, betiere lizentzia eskatzen duen lokalaren aurreko espaloian egonez gero.

2. Ohiko Itzalkinak edo antzeko beste elementu mugikor batzuk erabili ahalko dira. Itzalkin edo elementu mugikor horien garaiera berrehun eta hogeitaz (220,00) zentimetrokoa izan beharko da gutxienez lurretik irteten den edozein elementuren beheko ertzetik, inolako oztoporik gabe, eta beraren proiektzio bertikalak ezin ditu gainditu alboetako proiektzioen mugak.

3. Tarima edo antzekoa ipini beharko da espaloia eta terrazaren eremuaren artean irten-guneak egon ez daitezten. Jartzen den tarimak edo antzekoak ezin ditu eragin putzuak, eta ez du eragotzi behar euri uraren ohiko zirkulazioa. Tarima edo antzekoa ezin da izan irristakorra; hain zuzen ere, irristatzearen kontrako Rd >45 erresistentzia mailakoa izan behar da eta 3. lurzoru motakoa lurzoruen irisgarritasunaren CTE-SUA kodearen arabera.

4. Ez da emango baimenik elementu publikoei eragiten dieten fabrika obrak behar dituzten terrazak ipintzeko.

**13. artikulua. Luzera**

Establezimendu bakoitzeko instalazioaren perimetroa, alboetako babesak (mota guztietakoak) barne, ezin da izan berrogeita bost (45,00) metrotik gorakoa (4 aparkaleku plaza).

**14. artikulua. Okupazioa**

1. Lineako aparkalekuetan jartzen diren instalazioetan, beste muga guztiez gainera, terrazen eta mahaitxoaren zabalera okupatutako aparkalekuaren zabalaren antzekoa izan behar da, eta inolaz ere ez da baimenik emango bidea okupatzeko. Gainera, luzera aparkalekuko plaza osoen dimentsioen arabera izan behar da, eta alboetan ezin sortu izango da aparkaleku zatikirik.

2. Halaber, bateriako aparkalekuetan jartzen diren instalazioetan, terrazen eta mahaitxoaren zabalera okupatutako aparkalekuaren zabalaren antzekoa izan behar da, eta inolaz ere ez da baimenik emango bidea okupatzeko. Gainera, luzera aparkalekuko plaza osoen dimentsioen arabera izan behar da, eta alboetan ezin sortu izango da aparkaleku zatikirik. Nolanahi ere, alboetako itxiturak gutxienez 40,00 zentimetrora egon behar dira aparkaleku plazen arteko marren kanpoko ertzetik, ibilgailuetako ateak zabaldu eta sartu eta irten ahal izateko.

**15. artikulua. Alboetako babesak**

1. Instalazioak alboetatik babestu eta mugatu beharko dira zirkulazioaren edo ibilgailuen aparkalekuen mugakide den perimetro osoan.

2. Pertsonak ibilgailuetatik babesteko, alboetako babesak finakoak izango dira eta tinko ainguratuta egongo dira; gainera, gardenak edo zeharrargiak izan daitezke, eta are opakuak ere, baina egokiak jartzen diren ingururako. Babesak egokiak diren edo ez horren gaineko esku-mena daukan arloko udal zerbitzu teknikoek ebatziko dute. Alboetako babesek irisgarritasunari buruzko araudia bete beharko dute.

3. Alboetako babesen inguruko gainerako alderdi guztietan ordenantza honen 6. artikuluan ezartzen dena aplikatu behar da.

#### **16. artikulua. Eraikuntza arinak**

Eraikuntza arinei eta horien mugei ordenantza honen 7. eta 8. artikuluetan ezartzen dena aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

#### IV. kapitulua. Ondoko eremuak aparteko okupazioa

#### **17. artikulua. Ondoko eremuetan jartzeko irizpideak eta arau orokorrak**

1. Aparteko kasuetan, arrazoiak ongi azalduta, baimena eman ahal izango da terraza edo mahaitxo eremu osagarria jartzeko establezimenduaren ondoan.

2. Baimena lortzeko, ezinbestekoa izango da okupatu nahi den eremutik oinezko gutxi igarotzea eta dauden oinezkoentzako ibilbideak ez etetea ez eragozte.

3. Ondoko eremuak okupatzeko baimena udal zerbitzu teknikoaren irizpidearen arabera emango dira, eta eman ondoren bidezko udal organoak onetsi beharko ditu.

4. Eremu horietan ezin izango da ipini eraikuntza arinik ez alboetako babesik, eta baimena ez da izango urtebeterako.

5. Ondoko eremuak aparteko kasuetan okupatzeko lizentziaren eskaerak gainerako eskaeretatik bereizita egin behar dira.

#### V. kapitulua. Terrazak eta mahaitxoak ipintzea erabilera pribatuko lurzoru pribatuan

#### **18. artikulua. Terrazak eta mahaitxoak ostalaritzako jarduerekin lotutako erabilera pribatuko eremu pribatuetan ipintzeko irizpideak eta arau orokorrak**

1. Terrazak edo mahaitxoak erabilera pribatuko lurzoru pribatuan ipini nahi izanez gero, aski izango da ostalaritzako establezimenduak Udalari jakinaraztea lurzorua terraza edo mahaitxoak ipintzeko erabiliko duela, eta horrekin batera memoria bat edo, bestela, multzoaren estetika bermatzen duen proiektua aurkeztea, eremu publikoa balitz bezala bete beharko dena.

2. Eraikuntza arina ipini nahi izanez gero, segurtasunaren arloan eta hirigintzako araudiaren arabera aplikatu beharreko baldintza guztiak bete behar dira.

3. Terraza eta mahaitxo horiek eta beren elementuak ipintzean honako hauek bete behar dira: hirigintzako araudia, irisgarritasuneko araudia (ostalaritzako jarduerak bezalaxe) eta suteen inguruko araudia, kanpoko eremu segurutzat jotzeko.

#### VI. kapitulua. Araubide juridikoa

#### **19. artikulua. Udal lizentzia**

Terrazak eta mahaitxoak eta beren elementu osagarriak ipintzeko, Udalaren baimena beharko da, aurreko kapituluan adierazitako kasuetan izan ezik. Terrazak eta mahaitxoan jartzeko baimena lortzeko, ezinbestekoa izango da ostalaritzako lokalak jarduera lizentzia edukitzea eta alta emanda egotea Amurrioko Udalaren jardueren erregistro orokorrean.

**20. artikulua. Eskabidea eta erantsitako agiriak**

1. Interesdunak lizentzia eskabidea aurkeztu beharko dio Udalari, honako datu hauek adierazita:

a) Izen-abizenak.

b) Helbidea, telefonoa eta NAN edo IFK.

c) Merkataritza izena eta jarduera nagusiaren kokapena.

d) Ordenantza honen III. eranskinaren ereduaren arabera adierazpena, sinatuta; bertan berriaz adierazi behar da terraza ipintzeko lizentzia eskatzen duen ostalaritzako lokalak jarduera lizentzia daukala (3.1 artikulua) eta erantzukizun zibileko aseguru daukala (28.4 artikulua).

2. Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Terrazaren plano, 1:500 eskalako (ahal dela, Arabako Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofiziala oinarri hartuta); bertan honako datu hauek agertu behar dira: okupatu nahi den azalera, espaloien zabalera edo aparkaleku esparrua; zenbateko distantzia dagoen terrazatik izkinetara, oinezkoen eta ibilgailuen pasabideetara, larrialdietako irteeretara, eraikin eta establezimenduetako oinezkoen sarreretara, salmenta puntu finkoetara, telefono kabinetera, mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako beheraguneetara, beste terraza eta mahaitxo batzuetara, eta hiri altzarrietara.

b) Lokalaren eta terrazaren xehetasun plano, 1:100 edo 1:200 eskalako; bertan lokalaren fatxada non dagoen eta zein luze den zehaztu behar da (eta ondoko lokal baten fatxada aurpegia okupatuz gero, gauza bera fatxada horretaz), instalazioak okupatuko duen azalera xehatu behar da kotak ezarrita, eta mahaiak, aulkiak eta gainerako elementuak non egongo diren, zenbat izango diren eta zer neurritakoak izango diren zehaztu behar da, eta haien eta fatxaden eta inguruko elementuen arteko distantziak adierazi behar dira.

c) Instalazioa xumea izanez gero, aurreko a) eta b) puntuetako informazioa plano bakar batean bilduta aurkeztu ahal izango da. Planoa informazio guztia agertu beharko da, eta erraz ulertzeko modukoa izan beharko da.

d) Alboetako babesak ipini nahi izanez gero, ipini nahi diren babes guztien altxaera planoak, eta haien ezaugarriak zehazten dituzten agiriak, batez ere materialak, suaren aurreko portaera (gutxienez C-s2,d0) eta ainguratze edo galga sistema adierazita.

3. Lizentzia eskuratzeko baldintzak betetzearen inguruko datuak edota agiriak ezkutatu edo faltsutuz gero, lizentzia modu automatikoan ukatuko da eta, gainera, jardueraren titularrak ezin izango du lortu lizentzia urtebetean.

**21. artikulua. Eraikuntza arinaren proiektua**

1. Eraikuntza arina egin nahi izanez gero, aurreko artikuluen 2. puntuan adierazten diren agiriak gabe 6. eta 7. artikuluetan ezartzen denaren arabera proiektu tekniko aurkeztu beharko da. Proiektuan eraikuntzaren plano xehatuak egon beharko dira, 1:20 eskalakoak, oinplanoa eta altxaera zehazten dituztenak, bai eta elementua erabat zehazteko behar diren gainerako plano guztiak ere.

2. Gainera, proiektuan eraikuntza nolako eta zer neurritakoa den zehaztu behar da, zer materialez egingo den eta akaberak nolakoak izango diren azaldu behar da, suaren aurreko portaera zehaztu behar da (gutxienez C-s2,d0), eta atalak, ainguraketak eta haizearekiko erresistentzia (jasan dezaketen gehienezko abiadura aipatuz) agertu behar dira. Gainera, teknikari eskudunak sinatu behar du.

3. Eraikuntza jarri ondoren muntaketaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatua; bertan teknikariak adierazi beharko du muntaketa baimendutako proiektuaren arabera egin dela eta baimenean ezartzen diren gutxienezko baldintzak betetzen dituela.



**22. artikulua. Txostenak eta ebazpena**

1. Eskabidea aurreko artikuluetan ezartzen den bezala aurkeztu eta bidezko txostenak egin ondoren udal agintaritzak eskudunak arauzko epealdiaren barruan ebatziko du.

2. Behar denean, txosten teknikoan baimendutako instalazioaren ezaugarriak (kokalekua, okupatu dezakeen azalera, mahaien eta aulkien kopuruak, eta abar.) biltzen dituen agiria edo fitxa egongo da.

**23. artikulua. Lizentziaren baldintzak**

1. Lizentzia emateak ez du edukiko eraginik jabetza eskubidean eta hark ezin die kalterik ekarri hirugarrenei. Lizentzia ezin erabili izango da titularrari bere jardueretan egozten zaion erantzukizun zibilari edo penalaritari itzuri egiteko ez murrizteko, eta ez du salbuesten behar denean beste baimen batzuk lortu beharretik (lurraren jabetzaren baimena, esaterako).

2. Lizentziaren agirian eraikuntza eta elementu lagungarriak nolakoak izan behar diren zehaztuko da: kokapen zehatza, okupatuko den azalera, mahaien eta aulkien kopurua, baimenaren indarraldia, eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako zehaztasun guztiak.

3. Lizentzia prekarioan emango da beti, eta kasu batzuetan udal agintaritzak baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak azalduta, inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe: trafikoagatik, urbanizazioagatik, obregatik (publikoak zein pribatuak) edo interes orokorreko arrazoiengatik beharrezkoa denean.

4. Lizentziaren titularrak instalazioaren edozein elementuren ondorioz bide publikoan gertatzen diren kalteak konpondu beharko ditu. Era berean, lizentziaren titularrak instalazioaren zein terrazaren edo mahaitxoaren eta beren elementuen ustiapenaren ondorioz gertatzen diren kalte guztien erantzukizuna edukiko du, batez ere zoladuran finkatutako elementuen ainguraketek eta garajeen sartu-irtenak eragozteak edo elementuen proiektioek erabiltzaileei edo hirugarren pertsonaei egiten dizkieten kalteena.

5. Inguruan alboetako babes finkorik ipini ezean, perimetroa lurrian pintatutako marken bidez mugatu behar da (ahalik marka gutxien pintatu behar dira). Perimetroa Udalak pintatuko du lizentzia eman ondoren bertan ezartzen denaren arabera. Perimetroa pintatu arte ezin ipini izango da elementurik terrazan. Lizentziaren indarraldia amaitutakoan Udalak titularrari eskatu ahal izango dio marka guztiak kentzeko, eta horretarako emandako epealdiaren barruan kendu ezean, berak kendu ahal izango ditu eta kostua lizentziaren titularrari jasanarazi.

6. Lizentziaren baimenarekin batera Udalak zigitatutako agiria emango da, instalazioaren ezaugarriak azaltzen dituena. Agiri hori lokalaren kanpoaldean ipini beharko da, erraz ikusteko modura, edo alboetako babesetan (egonez gero).

**24. artikulua. Indarraldia**

1. Lizentziaren indarraldia 12 hilekoa izango da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Salbuespenak: lizentzia berria lortzen denean, ematen den egunetik aurrera egongo da indarrean; lizentziari baja emanez gero, baja eskatu arte egongo da indarrean.

2. Indarraldia amaitu ondoren lizentziaren titularrak edo, bestela, establezimenduaren titularrak instalazio osoa kendu beharko du eta bide publikoa lehen zegoen bezala utzi beharko du, hurrengo artikuluan ezartzen den berritze araubidea aplikatu behar den kasuetan izan ezik.

**25. artikulua. Lizentzia berritzea, uko egitea, aldatzea eta azkentzea**

1. Lizentziaren hasierako baldintzak betez gero, hura isilbidez berrituko da beste 12 hilabeterako, hain zuzen ere urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, baldin eta alderdietako batek besteari ez badio hilabete (1) aurretik adierazten lizentzia amaitutzat emateko asmoa daukala. Nolanahi ere, hori gorabehera, 23. artikuluan 3. apartatuan eta artikuluan honen hurrengo apartatuan ezartzen dena aplikatuko da.

2. Aurreko urtean arau hauste oso larriren bat egin duten lizentziadunei lizentzia berritzea ukatu ahal izango zaie urtebetean, gehienez, aplikatu beharreko zehapenak gorabehera.

3. Aurreko apartatuetan ezartzen dena gorabehera, eraikuntza arina egonez gero, bost urtean behin eraikuntzaren eta beraren muntaketaren egokitasunari buruzko ziurtagiri teknikoa aurkeztu beharko da.

4. Lizentziak baimentzen dituen azalerak ezin izango dira aldatu baimena ematen denetik urtebete igaro arte. Urtebete igarotakoan beste baimen bat beharko da aldaketak egiteko. Hala ere, baimendutako eremuan ipinitako mahaien eta aulkien kopuruak noiznahi aldatu ahal izango dira: horretarako, elementuen kopurua aldatzeko eskaera aurkeztu beharko da, eta horrekin batera plano berria 20.2.a) artikuluan ezartzen den bezala. Udalaren zerbitzu teknikoek eskaera aztertuko dute eta ondoren 23.6 artikuluan zehazten den agiria emango dute. Orduan eskatutako aldaketa egin ahal izango da.

5. Honako kasu hauetan baimena azkenduko da eta titularrak ez du edukiko kalteordainik jasotzeko eskubiderik:

a) Alderdi batek alde zuzenetik abisatzen duenean artikuluko honen 1. apartatuan azaltzen den bezala.

b) Baimendutako aldi baimena eman den momentuko errealitate fisikoa alda dezaketen jarduketak publikoak egiteko asmoa dagoenean.

c) Interes publikoagatik, baimendutakoa geroago onetsitako baldintza orokorrekin batez ere denean, herri jabariari kalte egiten dionean, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea galarazten duenean edo erabilera orokorrerako kaltegarria denean.

d) Tasa ordaintzen ez denean.

## **26. artikulua. Baimenaren titulartasuna aldatzea**

1. Terrazaren edo mahaitxoaren titulartasuna establezimendu nagusiaren lizentziarekin batera aldatuko da, titular berriak berariaz uko egin ezean (eginez gero, organo eskudunari jakinarazi beharko dio). Hasierako titularrak 25. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu eta titular berriari ukoaren berri eman beharko dio.

2. Ukoaren berri ez emateak berekin ekarriko du titular berria subrogatuta egotea emandako baimenaren ondoriozko betebeharrak guztietan.

3. Terraza jartzeko baimena ez zaie inolaz ere laga hirugarrenei establezimendu nagusitik berezita.

## **27. artikulua. Funtzionamenduaren ordutegia**

1. Ordutegiari dagokionez I. eta II. eranskinetan xedatzen dena aplikatuko da, eta horrez gainera eskumena daukan agintaritzak autonomikoak emandako indarreko araudia ere bai. Inolaz ere ezin izango dira terrazak edo mahaitxoaren elementuak ipini 8:00ak baino lehen.

2. Terrazaren edo mahaitxoaren funtzionamenduaren ordutegia amaitutakoan:

a) Eraikuntza arinak edo terrazak proiektua badauka, terraza eta beraren elementuak muntatuta utzi ahal izango dira edo kendu eta terrazarako gordetako eremuaren barruan pilatu ahal izango dira, ordenatuta eta oinezkoak eta ibilgailuan dabiltzanak arriskuan ipini gabe. Pilatutako elementuen multzoaren garaiera ezin da izan 1,50 metrotik gorakoa, eta elementuok ezin dira jarri hiri altzarrien ez landareen kontra eta ezin dira horietan kateatu.

b) Eremua alboetako babesek mugatzen badute, itzalkinak eta antzeko elementuak eta gainerako elementuak (alboetako babesak, mahaiak eta aulkiak) muntatuta utzi ahal izango dira edo terrazaren eremuaren barruan pilatuta gorde, aurreko apartatuan azaldu den bezala.

c) Gainerako kasuetan elementu guztiak kendu eta terrazaren eremuaren barruan pilatuta gorde behar dira, a) apartatuan azaldu den bezala.

3. Baldin eta aurreko apartatuan ezartzen denaren arabera terraza muntatuta uztea hautatzen bada, okupatutako eremuaren garbiketa lizentziaren titularraren kontura izango da.

4. Halaber, aurreko 2. apartatuan xedatzen dena gorabehera, Udalak noiznahi eskatu ahal izango du, arrazoiak adierazita, terrazako elementu bat edo batzuk bildu, tolestu edota pilatzeko, baldin eta ohartzen bada itzalpe handiak, segurtasunik gabeko eremuak edo puntu beltzak sortzen direla.

5. Terrazan edo mahaitxoan inolaz ere ezin izango dira ipini ez pilatu baimendutakoak baino elementu gehiago.

#### **28. artikulua. Lizentziaren titularraren betebeharrak**

1. Betebehar orokorrez eta ordenantza honen aplikazioaren ondoriozkoek gainera lizentziaren titularrak okupatzeko baimendutako lurra zein instalazioa bera eta beraren elementu osagarriak garbi, seguru eta apain mantendu beharko ditu, eta horretarako behar diren baliabide guztiak erabili beharko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak, eta abar.

2. Pertsona horrek edukiko du terrazen eta mahaitxoaren funtzionamenduaren eta erabileraren ondorioz gertatzen diren ingurumena babesteko ordenantzaren arau hausteen erantzukizuna.

3. Era berean, Udalarari ordaindu beharko dizkio bidezko tasak eta gainontzeko zergak, hain zuzen ere zerga ordenantzetan ezartzen diren kopuruak bertan arautzen den moduan.

4. Baimenaren titularrak establezimendu nagusiaren erantzukizun zibileko eta suteetako aseguruak eduki beharko du, eta aseguruak terrazaren instalazioaren eta funtzionamenduaren ondoriozko arriskuak ere estali behar ditu.

### **III. titulua**

#### **Kanpoko barrak ipintzea**

##### **I. kapitulua. Xedapen orokorrak**

#### **29. artikulua. Eremua**

Udalerriko jai hauetan bakarrik baimenduko da barrak ipintzea ostalaritzako lokalen kanpoaldean:

- Andra Mariaren eta San Rokeren jaiak.
- San Jose jaiak.

Jaietan dagoen auzoko lokalei bakarrik eman ahal izango zaie kanpoan barra ipintzeko baimena; salbuespena: Andra Mari eta San Rokeren jaietan udalerriri osoko lokalek eskuratu ahal izango dute baimena.

#### **30. artikulua. Instalazioaren baldintza orokorrak**

1. Barra establezimenduaren fatxada bezain luzea izango da gehienez ere.
2. Barrak establezimenduaren fatxadatik ixten duen tarte ezin izango da izan metro bat eta berrogeita hamar (1,50) zentimetrotik gorakoa.
3. Kanpoko barra ipintzeko baimena emateko, ezinbestekoa izango da espaloian gutxienez hiru (3,00) metroko pasabidea libre geratzea.
4. Barra txapazkoa edo plastikozkoa izan daiteke. Horri buruzko indarreko araudia bete beharko da, eta higiena eta segurtasuna behar bezala mantendu beharko dira.

#### **31. artikulua. Debekua interes publikoagatik edota bide segurtasunagatik**

Udal agintaritzak eskudunak barrak eta antzekoak ipintzea debekatu ahal izango du interes publikoagatik, trazaduragatik, egoeragatik, bide segurtasunagatik, obra publiko edo pribatuengatik, oinezkoen ugaritasunagatik, ikusgarritasunagatik, irisgarritasunagatik edo antzeko beste inguruabar batzuegatik. Halakoetan, debekua ongi oinarritu beharko da.

Ondoko eraikin batean edo eraikin berean jarritako aldarnioak edota markesinak barrari eragiten badio, Udalak barra jartzeko baimena ukatu ahal izango du.

## II. kapitulua. Eskabidearen baldintza formalak

### 32. artikulua. Eskabideak

1. Udalaren baimena beharko da kanpoaldean barra jartzeko.
2. Kanpoaldean barra ipintzeko eskabideak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu daitezke eskatzen den jarduera hasi baino hamabost (15) egun baliodun lehenago gutxienez, bai eta indarreko legerian arautzen diren baliabideak erabiliz ere.
3. Eskabidean honako hauek agertu behar dira gutxienez:
  - Eskabidea aurkezten duenaren izen-abizenak eta NANA. Gainera, establezimenduaren titularra ez bada, harekin zer harreman daukan zehaztu behar da.
  - Baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta NANA (fisikoa bada) edo sozietatearen izena eta IFK (juridikoa bada). Baimena eskatzen den establezimenduaren titularra izan behar da.
  - Jakinarazpenetarako helbidea. Adierazi ezean, establezimenduarena erabiliko da.
  - Eskabideari instalazioaren krokisa erantsi behar zaio. Bertan honako hauek zehaztu behar dira: barrak zenbat metro hartuko dituen; barra jarriko den fatxadaren guztirako luzera; barraren kanpoaldearen eta espaloiarenekin eratzaren edo oinezkoen bidea mugatzen duten elementuen arteko distantzia. Gutxienez hiru (3,00) metroko pasabide librea utzi behar da.

### 33. artikulua. Baimenaren indarraldia eta zerbitzuko gehieneko ordutegiak

1. Ematen den baimena eskabidean adierazten den jaiaren egunetan egongo da indarrean.
2. Kanpoko barren zerbitzuko gehieneko ordutegia dekretu bidez ezarriko da urtero.

### 34. artikulua. Lizentziaren baldintzak

1. Lizentzia emateak ez du edukiko eraginik jabetza eskubidean eta hark ezin die kalterik ekarri hirugarrenei. Lizentzia ezin erabili izango da titularrari bere jardueretan egozten zaion erantzukizun zibilar edo penalaritari itzuri egiteko ez murrizteko, eta ez du salbuesten behar denean beste baimen batzuk lortu beharretik (lurraren jabetzaren baimena, esaterako).
2. Lizentziaren agirian instalazioa nolakoa izan behar den zehaztuko da: kokapen zehatza, okupatuko den azalera, baimenaren indarraldia, eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako zehaztasun guztiak.
3. Lizentzia prekarioan emango da beti, eta kasu batzuetan udal agintaritzak baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak azalduta, inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe: trafikoagatik, urbanizazioagatik, obregatik (publikoak zein pribatuak) edo interes orokorreko arrazoiengatik beharrezkoa denean.
4. Lizentziaren titularrak instalazioaren edozein elementuren ondorioz bide publikoan gertatzen diren kalteak konpondu beharko ditu.

## IV. titulua

### Zehatzeko eta legezkotasuna berrezartzeko araubidea

#### I. kapitulua. Diziiplina araubidea

### 35. artikulua. Lizentziarik gabeko instalazioak

1. Udal agintaritzak bide publikoan lizentziarik gabe jartzen diren kanpoko barrak, terrazak eta mahaitxoak eta beren elementu osagarriak kendu ahal izango ditu, kautelaz eta berehala, bai eta emandako lizentzian ezarritakoa urratzen dutenak ere, eta horretarako bideratutako leku batean utzi ahal izango ditu arduradunaren kontura. Gainera, arauzko zehapenak ezarri ahal izango ditu.

2. Lizentziarik gabe instalazio horiekin erabilera publikoko lurzorua okupatzea hirigintzako arau haustea izango da eta, instalazio guztia desmuntatzeaz eta kentzeaz gainera, arduradunari indarreko hirigintza antolamenduan xedatzen diren zehapenak ezarri ahal izango zaizkio bidezko espedientea instruitu ondoren. Aurrekoa gorabehera, benetan okupatutako erabilera publikoko lurzoruari dagozkion tasak ordaindu beharko dira.

3. Lizentziaren indarraldia amaitu ondoren kanpoko barrak, terrazak eta mahaitxoak mantentzea udal baimenik gabe jartzea bezalakoa izango da.

### **36. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea**

Lizentziaren baldintzak edo ordenantza honetan ezartzen diren aginduak ez betetzeagatik hirigintzari eta toki araubideari buruzko indarreko legeriaren arabera zehapen ekonomikoa ezarriko da, bidezko espedientea instruitu ondoren. Nolanahi ere, Udalaren errekerimenduari jaramon egin ezean, lizentzia baliogabetuko da eta jarritako guztia berehala kenduko da.

### **37. artikulua. Betearazte subsidiarioa**

Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal aginduari jaramonik egiten ez bazaio, ordenantza honetan ezartzen diren kasuetan, Udalak bertatik kenduko ditu, interesdunaren kargura eta betearazte subsidiarioko bidean, eta horretarako bideratutako leku batean gordeko ditu. Jabeak bertan eskuratu ahal izango ditu, behar diren tasak eta gastuak ordaindu ondoren.

### **38. artikulua. Arau hausteen sailkapena**

Ordenantza honetan eta xedapen osagarrietan aipatzen diren arau hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

1. Arau hauste arinak dira:

a) Kanpoko barra, terraza edo mahaitxoak eta ingurua apain eta garbi ez egotea.

b) Lizentziaren xede den jardueraren ondorioz establezimenduaren ondoko hiri altzarrietan eta apaingarrietan narriadura arina gertatzea.

c) Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea, baimendutakoa baino ehuneko hamar baino gehiago okupatzen ez bada, baimendutakoak baino mahai edo aulki gehiago ipini gabe.

d) Baimendutakoak baino mahai gehiago pilatzea, nahiz eta ez erabili.

e) Udalak zigitatutako agiria, instalazioaren ezaugarrien berri ematen duena, ez ipintzea erraz ikusteko moduko leku batean edo baliaduna ez den agiria ipintzea.

f) Funtzionamenduko ordutegia amaitutakoan mahaiak eta aulkiak ez batzea eta ez pilatzea baimendutako tokian.

g) Ordutegia ez betetzea, jarduera baimendutakoa baino 30 minutu baino gehiago luzatzen ez denean.

h) Lizentzian ezarritako baldintzak edo ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea, hutsegite astuna edo oso astuna ez denean.

2. Arau hauste larriak dira:

a) Urtebetean bi arau hauste arin egitea.

b) Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea, baimendutakoa baino ehuneko hogeita hamar baino gehiago okupatzen ez bada edota baimendutakoak baino mahai edo aulki gehiago ipintzen badira.

c) Lizentziaren xede den jardueraren ondorioz establezimenduaren ondoko hiri altzarrietan eta apaingarrietan narriadura larria gertatzea, arau hauste arina ez denean.

d) Bide publikoa aulkiekin, mahaiekin, itzalkinekin eta antzekoekin edo terraza edo mahai-txoen beste elementu osagarri batzuekin okupatzea ezarritako ordutegitik kanpo.

e) Kanpoaldean telebistak, musika aparatuak edo bozgorailuak jartzea baimena eduki gabe.

f) Baimendu gabeko elementuak jartzea, mahaiak eta aulkiak ez beste batzuk.

g) Ordutegia ez betetzea, jarduera baimendutakoa baino 30-60 minutu baino gehiago luzatzen denean.

3. Arau hauste oso larriak dira:

a) Urtebetean bi arau hauste larri egitea.

b) Udal ikuskatzaileen eta agintarien legezko errekerimenduak kasu ez egitea.

c) Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea, baimendutakoa baino ehuneko hogeita hamar baino gehiago okupatzen bada edo baimendutakoak baino lau mahai baino gehiago ipintzen badira.

d) Jarduera segurtasun eskasarekin egitea.

e) Ordutegia ez betetzea, jarduera baimendutakoa baino 60 minutu baino gehiago luzatzen denean.

f) Lizenziaren indarraldia amaituta edo udal agintaritzak eskatzen duenean instalazioak erabat ez desmuntatzea eta ez kentzea.

g) Aginduzko udal baimenak ez edukitzea edo eskatzen duten udal ikuskatzaileei edo agintariei ez erakustea.

h) Ordenantza honetan eskatzen den erantzukizun zibileko eta suteen aseguruia ez edukitzea.

i) Okupazioaren tasa ez ordaintzea.

### **39. artikulua. Zehapenak**

Ordenantza honetan ezartzen diren arau hausteak egiteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

– Arau hauste arinagatik ohartarazpena edo 750,00 eurora bitarteko isuna jasoko da.

– Arau hauste larriagatik 1.500,00 eurora bitarteko isuna jasoko da.

– Arau hauste oso larriagatik 3.000,00 eurora bitarteko isuna jasoko da, eta baliteke lizentzia baliogabetzea ere.

### **40. artikulua. Zehapenak aplikatzea**

Aurreko artikuluan ezartzen diren zehapenak aplikatzean honako inguruabar hauek hartuko dira kontuan: erruduntasun maila, egindako hutsegitea, arau hausteak dakarren arriskua, errepikapena, eta gainontzeko larrigarri edo aringarri guztiak.

### **41. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena**

Zehapenak ezartzeko eskumena alkatetza-udalburutzak dauka.

### **42. artikulua. Zehapen prozedura**

Titulu honetan arautzen diren arau hausteengatik zehapenak ezartzeko prozeduran Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean arautzen diren zehatzeko ahalaren printzipioak aplikatuko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezartzen dena beteko da.

### Xedapen gehigarria

#### Bakarra. Arau estetikoak

1. Udalak baimendu ezean, orokorrean, eta udalerrri osoan, debekatuta dago publizitatea jartzea terrazetan eta mahaitxoetan eta beren elementu osagarrietan.
2. Eskabide berrietan zein altzari eta elementuen aldaketetan, ipiniko diren altzarien ezau-garriak adierazi beharko dira, eta horiek udal zerbitzu teknikoen oniritzia jaso beharko dute.
3. Toldo-itzalkinak dira terrazetako elementu nagusiak eta gehien ikusten direnak, eta horre-gatik diseinu eta tratamendu kromatiko unitarioa eduki beharko dute.
4. Terrazan edo mahaitxoetan ipini beharreko elementu guztien egokitasunari, ezaugarriei eta diseinuari oniritzia eman beharko diote eskumena daukan arloko udal zerbitzu teknikoek.

### Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. Aurreko ordenantzaren arabera edota Covid-19aren pandemiaren harira eman-dako terraza edo mahaitxoaren lizentziak iraungitza joko dira ordenantza hau indarrean jartzen denetik 4 hilabete pasatutakoan. Beraz, egun horretatik aurrera terraza edo mahaitxoak eduki nahi dituzten ostalaritzako establezimendu guztiek lehenbizi beste eskabide bat aurkeztu beharko dute, ordenantza honetan ezartzen diren xedapen guztiekin bat datorrena eta haren artikulua guztiak betetzen dituen.

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik 4 hilabete pasatutakoan ezin ipini izango da ter-razarik Udalaren baimen berria eduki arte.

Lizentzia berriak dokumentazioa aurkezten den hurrenkeran tramitatuko dira. Hala ere, eskabide baten dokumentazioa aztertzean antzematen bada zerbait falta dela edota ez dituela betetzen gutxienez baldintzak, eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio akatsa konpontzeko, eta konpondutakoan konponketa eguna hartuko da dokumentazioaren aurkezpen eguntzat.

Bigarrena. Aurrekotik salbuesten dira behin-behineko estalkia edo egitura arina duten terrazak, hain zuzen ere ordenantza hau indarrean jarri aurretik proiektua aurkeztuta onetsitakoak eta ordenantza indarrean jarri aurretik instalatuta daudenak. Horrelako kasuetan, eta 4 hilabeteko aldi baimendunak besterik jakinarazi ezean, baimen berria berez emango du Udalak aurrekoa eman zuen bezala.

Hala ere, baimena aldatu nahi izanez gero, beste eskabide bat aurkeztu beharko da, eta bertan ordenantza honen artikulua guztietan ezartzen dena bete beharko da.

### Azken xedapena

Bakarra. Ordenantza hau testu osoa ALHAOn argitaratzen denetik hamabost egun baliodun igarotakoan jarriko da indarrean.

**I. ERANSKINA**  
**Terraza eta mahaitxoaren ordutegia**

|          | ORDUTEGIA             |                             |                       |                             |
|----------|-----------------------|-----------------------------|-----------------------|-----------------------------|
|          | 10/01ETIK 05/31RA     |                             | 06/01ETIK 09/30ERA    |                             |
|          | AL, AS, AZ, OG ETA IG | OR, LR ETA JAIEGUN BEZPERAK | AL, AS, AZ, OG ETA IG | OR, LR ETA JAIEGUN BEZPERAK |
| Terrazak | 23:00                 | 00:30                       | 23:30                 | 01:00                       |

Egun hauetan bi ordu luzatuko da ordutegia:

- Andra Mariaren eta San Rokeren jaiak.
- San Jose auzoko jaiak.
- Aste Santua (ostegunetik astelehenera).
- Inauteriak (ostegunetik asteartera).
- Gabonak (abenduarien 15etik urtarrilaren 6ra).
- Beste jai ekitaldi batzuk (ikus II. eranskina).

Oharra: Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, 32. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duena bete beharko da, edo hori aldatzen edo ordeztzen duen arauak ezartzen duena. Hori dela-eta, terrazaren ordutegia 35. eta 37.6 artikuluetan ezartzen da.

**II. ERANSKINA**

**I. eranskineko ordutegia zabaltzeko jai gisa sailkatutako ekitaldiak**

- Artzain egunaren bezpera.
- Txakolinaren egunaren bezpera.
- Merkatari eguna.
- Mikoturismo egunaren bezpera.
- Gabonetako azoka.
- San Anton egunaren bezpera.
- Kintoen jaiak.
- San Juan bezpera.

Nolanahi ere, Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, 37.2 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, alkatetzak beste batzuk ezarri ahal izango ditu ebazpen bidez.



**III. ERANSKINA**

Nik, ..... jaunak/andreak (NAN: .....),  
Amurrioko ..... ostalaritzako establezimenduaren  
izenean eta ordezkartzan jardunez (helbidea: .....),  
honako hau

**ADIERAZTEN DU**

Lehenengoa: Ordezkatzen dudan ostalaritzako establezimenduak jarduera lizentzia dauka edota alta emanda dago Amurrioko Udalaren jardueren erregistro orokorrean.

Bigarrena: Ordezkatzen dudan ostalaritzako establezimenduak indarreko erantzukizun zibileko eta suteetarako aseguruua dauka terrazaren instalazioak eta funtzionamenduak eragiten dituzten arriskuak estaltzeko.

Data eta sinadura.

Amurrio, 2022ko urriaren 6a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*